FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera zerbitzuak eskaintzea izango da. Produkturik ez dugulako saltzen, hau da, ez daukagu biltegirik eta ez daukagu stock-ik mantendu behar. Horrek esan nahi digu ez dugula produktu fisikoekin lan egiten, baizik eta, pertsonekin. Guretzako inportanteena bezeroarekin harremanetan egotea eta beraien egoera edozein momentuan jakitea da.

Enpresak gehien garrantzia ematen dionari webgunea da, Ikerrek kontrolatzen duena. Gaur egungo teknologia berriekin bezeroak erraz aurki eta sartu daitezke webgunean. Enpresaren lehen kontaktua webgunea izango da bezeroak jakiteko zertaz doaz, gero webgunean bertan telefono eta lokalaren kokalekua ageriko dira zerbait arazo edo zalantza badaukate.